

AGENDA

Ekainaren 19an

- Herri Antzokia –18:30ean. Musika Eskola: Ikasturte amaierako ikasleen kontzertua.

Ekainaren 19, 20, 21 eta 23an

- Otegienea-Majori Jaiak.

Ekainaren 21ean, ostirala

- Dantzari Txiki Eguna.

Ekainaren 23an

- San Juan Sua.

Ekainaren 28an

- Garagartza Plazan: San Pedro Sua eta erromeria Patxi eta Konpainia taldearekin.

Uztailaren 2 - 3 - 4 eta 5ean

- Garagardo feria – Rugbya.

Uztailaren 11n

- Koadrilen arteko futbol txapeleketa: finala.



HERRI ANTZOKIA

LA SOMBRA DEL PODER

Ostirala 19: 22:15
Larunbata 20: 22:15
Igandea 21: 19:30 - 22:15
Astelehena 22: 19:30

+13. AEB, 2007. Zuz.: Kevin Macdonald. Akt.: Russell Crowe, Ben Affleck, Jason Bateman. 127 min.

Stephen Collins parlamentaria bere alderdiko izarrada, eta hurrengo hauteskundeetan presidentetzarako hautagaia izango dela uste dute. Haren laguntzailea hiltzen dutenean gauzak korapilatu egingo dira.



NUNCA ES TARDE PARA ENAMORARSE

Viernes 26: 22:15
Sábado 27: 22:15
Domingo 28: 19:30-22:15
Lunes 29: 19:30

T. EEUU, 2008. Dir.: Joel Hopkins. Inter: Dustin Hoffman, Emma Thompson, Eileen Atkins. 92 min.

Harvey no está pasando por el mejor momento de su vida. Viaja a Londres para la boda de su hija. Allí conoce a una mujer y cambia el rumbo de su existencia.



Telefono interesgarriak - Teléfonos de interés



UDAL BULEGOAK - OFICINAS MUNICIPALES

Idazkaritza - Secretaría.....	943 88 58 50
Kontu hartzailetza - Intervención	943 80 56 11
Obra bulegoa / -Oficina técnica	943 80 56 20
Euskara	943 80 56 22
Udaltzainak - Policía Municipal.....	943 80 56 16
GIZARTE ZERBITZUAK - SERVICIOS SOCIALES	
Gizarte ongizatea - Bienestar social.....	943 80 56 10
Kontsumitzaileen Informazio Bulegoa	
Oficina de información al consumidor.....	943 88 16 42
San Jose egoitza	
Residencia San José.....	943 88 11 19

KULTURA - CULTURA

Kultura saila - Departamento de cultura.....	943 80 56 30
Liburutegia - Biblioteca.....	943 80 56 35
Jaialdiak eta feriak - Ferias y festejos	943 80 56 32
Gazte informazioa - Información juvenil	943 80 56 34
Herri Antzokia.....	943 88 07 44
D'elikatuz	
(Turismo Bulegoa - Oficina de turismo)	943 88 22 90

KIROLAK - DEPORTES

Majori Kiroldetgia - Polideportivo Majori.....	943 88 93 33
Beti-Alai Pilotalekua - Frontón Beti-Alai.....	943 88 77 32

BESTE ZERBITZUAK - OTROS SERVICIOS

Udal ur zentrala - Central municipal de aguas.....	943 88 04 09
HEZKUNTZA - EDUCACIÓN	
Alotza Haur Eskola - Guardería Alotza	943 88 15 60

Goierri Lanbide Eskola

Escuela profesional Goierri.....	943 88 00 62
Jakintza Haur Hezkuntza	
Educación infantil Jakintza	943 16 16 76
Jakintza Ikastola - Ikastola Jakintza	943 16 05 40
Musika Eskola - Escuela de Música	943 88 87 52
Oianguren Institutua - Instituto Oianguren	943 88 08 62
Urdaneta Haur Hezkuntza	
Educación infantil Urdaneta.....	943 16 12 68
Urdaneta Ikastetxea - Colegio Urdaneta.....	943 88 27 80
Ordiziako Berritzegunea - PAT-COP.....	943 88 79 50
Helduen Eskola Publikoa (HEP)	
Escuela Pública de Adultos (EPA).....	943 16 05 36

HERRIKO BESTE HAINBAT ZERBITZU - OTROS SERVICIOS DEL MUNICIPIO

Anbulatorioa - Ambulatorio	943 80 58 00
Bake Epaitetgia - Juzgado de paz	943 88 11 35
Goieki	943 16 15 37
Goimen	943 16 12 44
Jubilatuena Etxea - Hogar del jubilado	943 88 92 88
KZgunea	943 88 43 78
Merkataritza Aholkularia	
Asistencia técnica al comercio	943 16 06 73
Nekazaritza Kamara - Cámara de agricultura.....	943 88 54 70
Oianguren Parkea - Parque Oianguren.....	943 16 13 71
Suhiltzaileak - Bomberos	112
DYA	943 46 46 22

3534-009



Paper birziklatuan egina

Ordizia gaur



¡Piropeando, los mejores!



2009ko ekaina, 17. zk.



Irisgarritasunean AURRERA



Geroz eta jende gehiago
Gizarte Zerbitzuen bueltan



Urdanetari buruzko
kongresuko ekarpenak
liburu batean jasoko dira



Los encuestados están
contentos con los abonos
de Herri Antzokia



Alberto y Oier Ibarzabal,
ganadores del evento
"Ordizia Begira"

Ordizia Begira El pueblo en imágenes

Hacer una radiografía del pueblo a través de imágenes por los propios ordizarras para que los representantes políticos puedan tener una idea lo más aproximada posible a la opinión que la gente tiene de nuestro municipio. Ése era el objetivo de la iniciativa "Ordizia Begira" impulsada por la Delegación de Participación Ciudadana y Voluntariado y ha sido todo un éxito. La delegada Mónica Marañoñ valora el resultado muy positivamente por la alta participación y las aportaciones recibidas. En estos momentos están elaborando la memoria para recoger todas las sugerencias y opiniones presentadas, de modo que sirva de guía para la representación política.

"Ordizia Begira" ekimenean 1. saria jasotako lana.



Alberto y Oier Ibarzabal.

Ganadores del primer premio

"El premio es para toda la familia, lo hemos hecho entre todos"



Zer dela eta erabaki zenuten Ordizia Begira ekimenean parte hartzea?

Informazioa jaso genuenean parte hartzea erabaki genuen, beti gustatu izan zai-gulako argazkiak ateratzea, oso iaioak ez garen arren. 25 bat argazki digital atera genituen eta haietatik 5 aukeratu.

Hasieratik garbi al zenuten zer erakutsi nahi zenuten?

Nik hasieratik nekiena da ez nuela nahi salaketa argazki bat egin. Momentu hartan Udalak Erdi Aroko Azoka antolatuta zuen eta etxeko laurok buelta bat ematera atera ginen eta bi gai hartu genituen. Batetik, herriko lorategiak eta bestetik, toki bereziak. Badaude toki politak baina hain gertu ditugunez, ez diegu arretarik jartzen. Behin argazkiak aterata familian egin genuen aukeraketa.

Zergatik diozu hasieratik bazenekiela ez zenuela salaketa argazki bat nahi?

Gorputzaldiagatik, agian. Udaberrian gaude eta... lotsa apur bat ere eman zidan horretan hasteak. Badaude beste arazo larriagoak.

Zuen argazkiak Ordiziaren eta Europako herrialdeen arteko parekotasuna bilatzen dute.

Argazkiek eman ziguten ideia. Bat Greziarekin, bestea Holandarekin alderatzen genuen, etxeengatik, eta hirugarrena Italiako hiriburuarekin, Erromarekin.

Semearrekin arratsalde polita igarotzeko aitzakia ere izango zen beharbada.

Bai, nola ez. Eskulaneekin bezala. Margotu, zer jarri pentsatu... Familia osoaren elkarlana izan da. Oierrek dioen moduan "tokatu zaigun argazki kamera denon artean irabazi dugu". Positiboki hartu genuen, jolas modura.

Estreinatu duzue kamera?

Ba oraindik ez.

Zer iruditu zaizu "Ordizia Begira" ekimena oro har?

Azkenean alderdi ludikoa ikusi dugu baina kostako zitzaizen hau guztia aurrera eramatea eta lehenengo aldía izaki, ondo atera da; beraz arduradunei ere zorionak. Eta ez dut hori esaten irabazle suertatzeagatik.

Los trabajos más votados

- ▶ Oier y Alberto Ibarzabal 167 votos
- Sheila Salamanca 99 votos
- Maddi Caballero 54 votos

La accesibilidad presente en la agenda municipal

Quando un escalón es un quebradero de cabeza...



Asun Jauregi



Koldo Urteaga



Quintina Sánchez



Marisa Landa

Un coche mal aparcado, un puesto de fruta en la acera, un autobús no adaptado, un cambio de baldosas o un contenedor de basura demasiado alto se convierten, entre otro sinfín de cosas, en un problemón para muchas personas. Desde Fundación Goyeneche insisten en "diseñar para todos", porque efectivamente cualquiera puede verse en un momento dado en la necesidad de utilizar una silla de ruedas o de buscar ayuda por problemas de visión. Koldo Urteaga, Marisa Landa y Quintina Sánchez saben bien qué es tener que cambiar de trayecto para evitar obstáculos en su camino. Nos lo cuentan junto a la directora del Centro de Día de la Fundación, Asun Jauregi.

Zailtasun handiak al dituzue Ordiziako kaleetan zeuen erara ibiltzeko?

Koldo Urteaga: Zenbait tokitan espaloia bera ere ez dago maila berean, aldapak sortzen dira eta nik aulki elektrikoa izan arren, laguntza behar izaten dut. Eta gaizki aparkatutako autoena ere betiko kontua da. Elkarrizketara gentozela, esaterako, denda batek fruta postua jarria zuen espaloian eta ni ozta-ozta pasa naiz. Pasako ote nintzen neurtzen ibili behar izan dut.

Quintina Sánchez: Nik, adibidez, idatzi bat bidali diot alkateari duela gutxi. Gureak zentroan, nire lanetako bat da zaborra ateratzea baina kanpoko edukiontzian poltsa botatzen hasten naizenean, askotan behatzak harrapatzen ditut. Altuegi dago.

Askotan aldatu behar izaten duzue ibilbidez, oztoporen batekin aurkitu zaretelako?

K.U.: Nik orain nahikoa kontrolatuta ditut ibiltzen naizen kaleak. Baina, adibidez, Urdaneta kalea obratan zegoenean, gaizki ibiltzen nintzen. Gero, denda askotan ezin naiz sartu maila bat dagoelako edota sarrera estuegia delako. Donostiara trenez medikua-rengana joateko ere amak eta izebak, biek etorri beharra daukate. Laguntza eskatzeko esaten dizute, baina ez da inor egoten.

Marisa Landa: Ni trenean baino autobusean hobeto moldatzen naiz. Batzuetan, ordea, autobusean etortzen garenean, kotxeren bat gaizki aparkatuta dagoelako, autobusak ezin izaten du geldialdia dagokion tokian egin. Urrutirago joaten da eta nik ikusmen arazoak ditudanez, kosta egiten zait.

Asun Jauregi: Kanpora bisita bat egitera joaten garenean edota bazkaltzera, gure lehenengo galdera beti horixe izaten da, egokিতa al dagoen tokia. Adibidez, bere garaian Beasaingo liburutegira joatea erabaki genuen Ordiziako ez zegoelako egokitua. Arazoa ez da bakarrik gorpil-aulkia. Askok ikusmen arazoak dituzte eta ez dute segurtasunik.

Lurreko baldosak aldatzen badira, esaterako, zer gertatzen zaizu Marisa?

M.L.: Pentsatzen dut maila bat dagoela eta gelditu egin behar izaten dut.

A.J.: Obrak egin behar direnean, denekin pentsatu behar da.

Zer eskatuko zenioke Udalari?

K.U.: Zebra-bideak egokitzeko. Beti erantzun ona jaso dugu Udalaren aldetik.

A.J.: Udalak erakutsi duen sentsibilitatea aintzat hartzekoa da. Ondo erantzun du eta hori ez da toki guztietan gertatzen.

Ordiziako Udalak lehentasuna eman nahi izan dio herriko irisingarritasuna hobetzeari eta oraindik egiteko asko dagoen arren, iaz garatutako irisingarritasun planaren ondorioz ekindako bideari jarraituz, aurten ere hainbat gunetan esku hartuko da. 322.234 euro bideratuko ditu espaloiak zabaltzeko eta zebra-bideak jaisteko.

Intervenciones previstas para 2009

Ensanchamiento de aceras:

- Arana kalea 1-2.
- Zona alta de Víctor Mendizabal kalea.
- Samperio kalea desde Garagartza hasta Arana.
- Acera opuesta a la altura del nº 5 de Samperio.
- Foru kalea, se renovará toda la acera del Palacio de Zabala hasta Arana, y se ensanchará el tramo comprendido desde la esquina del Palacio con el frontón pequeño, también hasta Arana.
- Entre Filipineta kalea nº 1 y el gaztetxe.



Arana kalea

Araba Behea kalea

Filipineta kalea

Filipineta kalea

Rebaje y ensanchamiento de pasos de peatones:

- Iturtxobidea 1.
- Mendizabal kalea, zona alta.
- Samperio 5.
- Araba kalea, en ambos extremos.
- Bizkaia pasealekua, junto a puente del parque de Oreja.
- Los tres pasos del cruce entre Diego Rivero y Kale Berria; uno más en el otro extremo de Kale Berria.
- Filipineta kalea, cruce con Zuberoa.
- Los cuatro pasos de Gipuzkoa kalea existentes a la altura de Urdaneta Ikastetxea (edificio de Educación Primaria).
- Gipuzkoa kalea, 1.
- Euskalerría kalea, nuevo paso a la altura del nº 1.